



GARIKOITZ ALTUNA ▶ ERREMONTISTA

«Pozgarria da gure eguneroko lana aintzat hartzea»

AMEZKETA ▶

2006an partida gehien irabazi dituen kirolaria da Altuna

DATUAK ▶ 108

neurketa jokatu ditu; horietatik 70 irabazi ditu, binaka ▶ 5

TOLOSA ▶

Eskualdeko lehiakortasun analisiaren azterketa martxan da

Tolosaldea Garatzenek bultzatu du egitasmoa, Deloitte zerbitzu enpresarekin batera ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Ia 8.000 kilo elikagai bildu dituzte Sahararen alde

Tolosaldea Sahararekin elkartek aurtengo erronka gainditu du ▶ 2



NAIARA GARZIA

AMAIA PANDO ▶ CEDERNA GARALUR-KO TEKNIKARIA

«Jendea hemen gelditu eta bertan lan egitea da gure helburua»

Cederna Garalurko lan orientazio zerbitzuak urte asko daramatza mendialdeko herrietan lana bultzatzen ▶ 7

TOLOSA ▶

Inauterietarako garraio zerbitzua indartuko dute

Tren, autobus, aparkaleku eta sorospen zerbitzuak gehitu dituzte ▶ 3



Garraio zerbitzu bereziak jarriko dituzte datozen egunetarako. I. T.

ZIZURKIL ▶

73.000 euro Eskeltzuko lurrak esku-hartzeko

Abereen erabilerarako egokituko dituzte ▶ 4

ELKARTASUNA ▶

Sahararen Aldeko Karabanan ia 8.000 kilo bildu dituzte

Tolosaldea Sahararekin elkartean erronka bete dute kopuru horrekin; Sahararako bidean jarri dituzte elikagaiak



Iragan asteburuan bete zuten kamioia elikagaiekin. HITZA

INIGO TERRADILLOS

Pasa den abenduaren bukaeran ekin zion Sahararen Aldeko III. Euskal Karabanak, eta urtarrilaren amaiera aldera arte iraun du. Hala, epe horretan 7.900 kilo biltzea lortu dute Tolosaldean.

Tolosaldea Sahararekin elkartea gustura azaldu da lortutako emaitzekin, izan ere, kanpainaren hasieran 7.000 kilo biltzeko erronka jarri zuten, eta zenbaki hori gainditzea lortu dute. *Baietz 7.000* kilo izan da, beraz eskualdean aurtengo kanpainaren leloa, eta hauek izan dira elikagaien arabera bildutako kopuruak: 1.592 kilo azukre, 2.086 kilo arroz, 2.619 kilo dilista, 1.029 kilo hegazuze

eta 340 kilo konpresa. Aurreko urteko datuekin alderatuta, asko egin du gorantz, 3.000 kilo bildu baitziren. Eskualdean 11.000 kilo biltzea ere lortu zuten Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideek urte batean, baina zenbaki hori asko jeisten ari zela urtetik urtera kontuan hartuta, aurtengoa berri bati ekitea, eta Tolosako Triangulo plazan ikusgai jartzea biltzen ari ziren kiloen kopurua erabaki zuten jendea parte hartzera animatzeko. Eta badi-rudi funtzionatu duela, espero baino gehiago jaso baitute azkenean eskualdeko herritarren eskutik. Aurtengo kanpainarako eskatzen ziren elikagaiez gain beste hainbat laguntza ere jaso dituzte. Tolosako denda batzuk emandako materiala edota Arditaxa kultur elkartek utzitako 3.000 elastikoak, esaterako.

Saharara bidean

Horiek guztiak iragan asteburuan sartu zituzten sahararren errefuxiatuen kanpamentuetara abiatuko den kamioiean. Kamioi hori bezala beste hainbat beteko dituzte, kanpaina Euskal Autonomia Erkidegoko herrietan burutu baitute. Helburu berarekin jartzen da martxan urtero ekimen hau, herri sahararrari ahalik eta elikagai gehien eramatea, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetan pairatzen duten elikagai faltari aurre egiteko, ahal den neurrian. Izan ere, errefuxiatu sahararrek elikadura egoki eta orekatu batera iristeko asko falta zaie, eta egoera honek ondorio larriak ditu haien osasunean, batez ere, umeetan, haurdun dauden emakumeetan eta bularra ematen duten emakumeetan.

Alde horretatik, aurtengo karabanak berebiziko garrantzia izan du, izan ere, urtetik urtera gero eta laguntza gutxiago iristen zaizkie eta hori dela eta, elikadura eskasiagatik egoera oso larriar aurkitzen dira egun sahararrak.

TOLOSA ▶

Ipuin kontaketa saioa gaur, haur liburutegian

Tolosako haur liburutegian, gaur, 18:00etan, 4 eta 9 urte bitarteko haurrentzat ipuin kontaketa saioa izango da ikusgai. Marilur ariko da kontu kontari.

TOLOSA ▶

Iraupen eski ikastaroa abian da

Datozen bi asteburutan, hau da, otsailaren 24 eta 25ean eta martxoaren 3an eta 4an, iraupen eski ikastaroa antolatuko du Alpino Uzturre elkar-teak, 1996, 1995, 1994 eta 1993 urteetan jaiotako neska-mutilentzat. Ikastaroa Somport-en (Candanchutik gertu) izango da. Informazio gehiagorako edota izena emateko 685 776 504 (Xanti) telefono zenbakian.

TOLOSA ▶

Zezenetako sarrerak erosteko aukera

Inauterietako zezenetako sarrerak aurrez erosteko aukera dago, zezen-plazako takilan 17:30etik 20:30era. Inauteri egunetan 11:00etatik 13:00etara irekita egongo da.

TOLOSA ▶

Arpegiren jaialdirako sarrerak

Arpegi taldearen Ostiral Meheko jaialdirako sarrerak salgai daude Cantabrigon, Triangulon eta Meson Atodo tabernetan.



Laskorain Ikastolako helburua ere gaindituta

Laskorain Ikastolan ere Sahararen Aldeko Karabanearekin bat egin zuten, *Ikasle bat, gutxienez kilo bat* lelopean, eta lortu dute betetzea, 1.000 kilo elikagai jasotzera hurbildu baitira. Laguntza

hori ere beharrezkoa izan da eskualderako jarrutako erronka gainditzeko. Ikastolak eskerrik beroenak eman nahi dizkie janari bilketan parte hartu duten guztiak. HITZA



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Amasa. 124m2ko bi etxebizitza. Egoera oso onean. Altzairu eta guzti.
Alegia. Eraikuntza berriko pabilioiak salgai. Azken moduluak. 350m2tik hasita.
Belauntza. Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.
Berastegi. Bi solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairu bakoitzeko.
Berrobi. Behe solairuko etxebizitza. 50 m2koa. 117.200 euro.
Berrobi. Laugarren solairuan etxebizitza salgai. Berritua.

Irura. San Migel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarriak.
Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariek, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.
Tolosa. San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.
Tolosa. Ugarran Goenan, baserria berritu beharrekoa. Hiru solairuko.
Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

Tolosa. San Frantziskon apartamentu altua salgai. Logela bakarra. Guztia eraberritua. Ikuspegi ederrak.
Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.
Tolosa. San Frantziskon etxebizitza salgai. 90 m2koa, eraberritua, oso eguzkitsua.
Tolosa. Maituna zaharra. 12 garaje berri eta ibiak, 30m2tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko.
Eraikitzeko.
Villabona. 35 m2ko lokal

komertziala. Behe solairuan. Bainua eta masaje gela. 75 m2ko sotoa masaje gelek, bulegoekin, bainugelarekin eta abar, eta 75 m2ko biltegiarekin, karga-jasogailu bidezko sarbidearekin behe solairutik.



GIZARTEA ▶

ESTI EZEIZA

Inauteriak direla eta, garraio zerbitzuetan zenbait aldaketa egingo dituzte datorren egunetan. Esaterako, aparkalekuei dagokionean, San Estebanen 200 autorentzako lekua egongo da; Usabal industrialdean 500entzako; Usabal kiroldegian beste 180entzako; Larramendin 200entzako; eta azkenik, Berazubi kiroldegian 45entzako.

Bestalde, DYAK sorospenetarako postu berezi bat jarriko du Musika Eskolaren lokalean, Laskorain kaleko 16an. Postu hau 21:00etatik 08:00ak bitartean egongo da irekita, eta bere egitekoa, jai hauetan parte hartzen duten milaka pertsonen izan ditzazketen sendaketa txiki, ubeldura edo ondoezaldiei berehalako arreta eskaintzea izango da.

Tren zerbitzuari dagokionean, Renfek aldiriko tren bereziak antolatuta ditu larunbat, igande eta astelehenerako, Irun-Brinkola ibilbiderako. Gaueko zerbitzuez gain, eguneko zerbitzua ere indartuko du. Gaueko zerbitzua etengabea izango da 22:10etik 07:00etara, batez ere, Tolosatik beste herri batzuetara joateko.

Tolosatik Brinkolara tren bereziak egongo dira: larunbatean, 02:00etan, 03:50etan eta 05:20ean. Bestetik, Tolosatik Irunera tren bereziak egongo dira 01:00etan, 02:00etan, 03:00etan, 03:50ean eta 05:00etan.

Garraio zerbitzua indartuko dute datozen egunetan

Inauteriak direla eta, tren, autobus, aparkaleku eta sorospen zerbitzuak indartuko dituzte bihurtik aurrera

AUTOBUS ZERBITZUAK ▶

TSST (ASTEASUKOA)

23:00etatik 04:00etara.

Ostegun Gizenetik Asteartitara arte, ordu erdiero irtengo da autobusa Asteasutik Tolosara etortzeko. Tartean, zenbait geldialdi egingo ditu Zizurkil, Villabona, Irura eta Anoetan.

23:30etik 04:30era. Ostegun Gizenetik Asteartitara arte,

orduek irtengo da autobura Tolosatik Asteasura joateko. Santa Klaratik abiatu, eta tartean geldialdiak egingo ditu Anoeta, Irura, Villabona eta Zizurkil.

HIRIBUSA EGUNEKO ZERBITZUA

Bihartik larunbatera. Azken bidaiak 22:00etan.

Zaldunitan. 10:30etik

14:30era eta 16:00etatik 20:00etara.

Astelenita eta Asteartitan. 07:30etik 10:00etara ohiko

ibilbidea egingo du. 10:30etik 14:30era eta 16:00etatik 20:00etara berriz, ondorengo ibilbidea egingo du: Zubi Berria-Amaroz-Usabal industrialdea-Usabal kiroldegia-lurreamendi-lurre-Kondeko Aldapa-Zubi Berria.

TSST (DONOSTIAKOA)

Larunbatean. Ohiko zerbitzua.

Zaldunitan. 07:00etatik 21:45 arte izango dira Tolosatik Donostiara joateko.

Alderantziko norantzan berriz, 08:00etatik 21:45 arte. Dena den, 22:45ean Lasartera doan autobus bat irtengo da. Gaueko zerbitzuari dagokionean, 00:00etatik 07:00etara orduero irtengo da autobusa.

Astelenitan. 07:45ean hasi, eta azken zerbitzua 22:45ean izango da Donostiatik Tolosara etortzeko. Alderantziko

norabidean berriz, ohiko zerbitzua egongo da.

Asteartitan. Ohiko zerbitzua izango da egunez, joan nahi etortzeko. Dena den, gauez 00:00etatik 07:00etara orduero irtengo da autobusa.

GAUEKO ZERBITZUA

00:30ean, 02:00etan eta

03:00etan. Ostegun gizenetik asteartitara autobus zerbitzua izango da ikaztegieta joateko. San Frantziskotik abiatuta, lurren, Amarozen, Alegin eta Amezketan egingo ditu geldialdiak.

01:00etan, 02:30ean eta 04:00etan. Ostegun Gizenetik Asteartitara bitarte autobus zerbitzua izango da Berastegiara joateko. San Frantziskotik abiatuta, geldialdiak egingo ditu ere, lurre, Amaro, Ibarra, Berrobi, Eldua eta Elsuaien.

GIZARTEA ▶

Nahasketa izan da zesta puntako txarteletan

Beotibar Zesta-Punta elkar-teak afari zozketako txartelak atera eta saldu ditu. Baina inprentako akats bat dela eta, data batzuk oker daude. Hori dela eta, txartelak erosi dituztenei adierazi nahi diete, zozketa egunak hauek izango direla: otsailak 15, 16, 19, 20, 21 eta 22. Bestalde, barkamena eskatu nahi diete txartelak erosi dituztenei, sortutako eragozpenengatik.

KULTURA ▶

Inauterietan ez da zine saiorik egongo Leidorren

Inauteriak direla eta, ez da zine programaziorik izango datorren egunetan Leidor aretoan. Izango den ekitaldi bakarra Ostiral Meheko jaialdia izango da. Hau Arpegi taldeak antolatuta du eta 22:45etik aurrera izango da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112))

Osasuna.
▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
▶ **Orendain.** Medikua: 655595
▶ **Orexa.** Medikua: 682228
▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
▶ San Esteban: 006800
▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaro zko dispen.: 672637
▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)

▶ **DYA:** 672536
▶ **Gurutze Gorria:** 674888
▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.
▶ Renfe: 902 24 02 02
▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621
▶ Leitza autobus.: 948 221015
▶ **Taxia:** 670420
▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.
▶ **Ertzaintza:** 538820
▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858
▶ **Tolargi:** 650016
▶ **Iurramendi egoitza:** 670325
▶ **Tolosa gasa:** 675320

EKONOMIA ▶

Eskaldeko lehiakortasun analisiari buruzko tailerrak ari dira egiten

Tolosaldea Garatzenek bultzatu du egitasmu hau, Deloitte zerbitzu enpresarekin batera

ERREDAKZIOA

Tolosaldea Garatzen, Deloitte zerbitzu profesionalen etxearekin batera, Tolosaldea eskualdeko lehiakortasun diagnostiko proiektua lantzen ari da. Era honetako proiektu baten helburua jarduera-sektore nagusien ikuspegitik eskualdeko lehiakortasunaren azterketari ekitea da, eskualdean planteatu daitezkeen etorkizuneko ingurumari edo aukera estrategikoak identifikatzu.

Helburu hau lortzeko, 3 fase-tan egituraturatuko lan-eskema

proposatu dute: lehendabizikoak, sare ekonomikoaren azterketa. Bigarrenetan, lehiakortasun-egoeraren azterketa, eta azkenik, aukera estrategikoak eta iradokizunak.

Une honetan, 1. eta 2. faseak garatzen ari dira, eskualdeko lehiakortasun diagnostikoari buruzkoak, alegia. Lehiakortasun-egoeraren diagnostiko eta azterketa hau ikuspegi partehartzaile batetik gauzatu nahi dute, eta horretarako «eskualde ahal den hobekien ordezkatuko duten enpresa eta eragile ekonomikoak» laguntza



Lehendabiziko tailerra Baliarrainen egin zuten joan den astean. HITZA

eskatu dute, etorkizunari begira «guztiok onartutako ikuspegi lortzen saiatuz».

Hori dela eta ekimenaren bultzatzaileek eskualdeko enpresetako zuzendari edo jabe-ei aurreikusitako tailerretako batean parte hartuz laguntze-

ko eta beraien ekarpenak egingo eskatu diete.

Joan den astean egin zuten lehenengo tailerra Baliarrain-go Zartagi aterpetxean eta bertan parte hartu zuten eskualdeko zenbait enpresetako zuzendariak.

ZIZURKIL ▶ NEKAZARITZA

73.000 euro jarriko ditu Udalak Eskeltzu berreskuratzeko

Lehenengo fasean lortutako emaitza positiboen ondoren, inbertsio honekin planaren bigarren fasea burutuko dute

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak 73.000 euro inbertituko ditu Eskeltzuko mendian baztertutako lursailak berreskuratzeko. Esku-hartze honen asmoa lurra larreak bideratzea da. Ekimen honekin 2004. urtean abian jarritako planaren bigarren fasea burutzen da, mendiaren lurretan esku-hartu eta aberenean erabilerarako egokituz.

Eskeltzuko larreak baztertuta zeudela ikusirik, Zizurkilgo

Udalak arazoa konpontzea erabaki zuen eta bertan diren hainbat sail pribatuaren jabeekin jarri zen harremanetan. Azkenik, jabeek 15 urtetarako Udalaren esku uzteko akordioa iritsi dira, lurra larreak berreskuratu ahal izateko.

Lehenengo fase batean, Udala mendiaren 28 hektareatako sail eremuan aritu zen lanean, ganaduak bazkatu ahal izateko lursailak egokitzen hain zuzen ere, beharrezko azpigituz hornitzen aritzeaz

gain, itxiturak, ur hartuneak eta animaliak batzeko mangak besteak beste. Esku-hartze honen 150.000 euroko aurrekontua izan zuen eta %64a Tolosaldeko Mendi Nekazaritza elkarteak finantzatu zuen.

Udalak, besteak beste, lurra aztertu eta beharrezkoa bada ongarritu ere egiten ditu. Esperientziaren lehenengo faseko emaitza onak ikusirik, ekimena mantentzea erabaki du Udalak eta urte honetarako 73.000 euro bideratu ditu.

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA



Porrotxek ederki alaitu zien atzoko arratsaldea haurrei. I. GARCIA

Porrotx pailazoaren bisita Fleming eskolara

I. GARCIA

Fleming eskolak Arroan duen egoitzan Porrotx pailazoaren bisita izan zuten atzo. Eskolakoak Mari Motots bezala mozorrotu behar dira Inauterietan, hau da, Pirritx eta Porrotx pailazoaren emanaldi berriaren pertsonaia. Haurrek zorutzen

jaso zuten sudurgorriaren bisita eta arratsalde eder bat pasatu zuten.

Fleming eskolakoak *Mari Motots* emanaldi berriaren grabaketan parte hartu zuten Andoainen. Haurrek ederki igaro zuten eta, borobiltzeko, Porrotxi gonbidapena luzatu zioten eskolara joateko.

gure etxean
euskara
gure etxean
berria

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoan baino %10 merkeago.
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat opariak: zozketak eta kupoiak astero, eta urte osoan erabiltzeko hainbat deskontu.
4. Promozioetan abantailak: BERRIAk ateratzen dituen liburak, diskoak eta abar merkeago.

Orain eskaintza berezia

Otsailaren 28a baino lehen harpidetu^{*} gero, oparia zuretzat

2 LAGUNENTZAKO BAZKARI EDO AFARIA
zuk aukeratzen duzun
hauetako sagardotegi batean

GIPLUZKOA LARRE GAIN ☎ 943 555 846 Hizuntza	GIPLUZKOA OTSUA-ENEA ☎ 943 556 894 Hizuntza	BIKAZIA IBARRA ☎ 946 731 100 Zornotza
ARABA ITURRIETA ☎ 945 445 385 Asteasu	NAFARROA MARTITXONEA ☎ 948 604 607 Altoitz	

Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**

* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar du

VILLABONA ▶

Haur elebidunen gurasoak hizpide

Villabonako Udaleko Gizarte Ongizate Sailak, Guraso Eskolaren barnean, gaur haur elebidunen gurasoek seme-alabengan euskararen aldeko jarrera sustatzeko zuzendutako hitzaldia antolatu du. Hitzaldia irekia izango da nahi duenarentzat. Gurearen erakusketa aretoan izango da, 17:00etan, eta Julio Ibarra komunikatzaile ezagunak emango du gaztelaniaz.

ANOETA ▶

Adobe Acrobat Reader-i buruzko mintegia, bihar

Anoetako KZgunean tutorearen bisita izango dute bihar, 09:00etatik 13:00etara. Tarte horretan mintegia emango du, Adobe Acrobat Reader programari buruz. Ez da beharrezkoa izena ematea aurretik, nahikoa da bihar bertan hurbiltzea.

ASTEASU ▶

Erakusketa udaletxean, hiri hondakinei buruz

Tolosaldeko Mankomunitateak *Amesgaiztorik ez!* hiri hondakinen inguruko erakusketa jarri du Asteasuko udaletxean. Hilaren 28ra arte izango da zabalik astegunetan 09:00etatik 14:00etara eta asteazkenetan baita 16:00etatik 20:00etara ere.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GARIKOITZ ALTUNA ▶ ERREMONTISTA

«Gure eguneroko lana kontuan hartzea ona da, pozgarria»

Amezketako erremontista 2006. urteko partida gehien irabazi dituen jokalaria izan da; 108 partidatik 70etan 40 tantoak egitera iritsi da

NEREA URBIZU

Garikoitz Altuna, Altuna II.a, (Amezketako, 1975) izan da 2006. urtean zehar Galarreta pilotalekuan jokatu diren erremonte partida gehien irabazi dituen erremontista. Konstantzia edo erregularitasuna erakutsi du honekin pilotariak.

108 partida jokatu dituzu 2006. urtean zehar. Ez al dira gehiegi?

Ez dira asko: lehenago gehiago jokatzen genituen, gogorragoa zen. Erremontean aritzeko ez dut gehiegi direla esango, horretara ohituta gaude. Hauetatik 70 irabazi ditut, jokatutakoen %65, hain zuzen.

Sari antzeko hau jasotzen duzun lehenengo aldia da?

Bai, ez dut uste beste urteetan hau egin izan dutenik. Enpresak emandako datuak dira, eta publiko egin dutela lehen aldia dela esango nuke.

Datu hauek mesederako dira. Hori nabarituko da gerora?

Jendeak jada ezagutzen nau, urte batzuk badaramatzat jokatzen, 19 urterekin debutatu bainuen. Baina gure eguneroko lana kontuan hartzea ona da, pozgarria. Gainera, Galarretan apustu egiten duen jendea dago eguneroko, eta horiei ere errespetua behar zaie.

Aurten behintzat pozik egongo dira zurekin apustulariak.

Bai, pentsatzen dut baietz: erregularra izan naiz urte osoan zehar eta apustulariak azken batean ez dira tuntunak: nire alde egin bazuten nolabaiteko konfidantza zutelako izango zen.

Denak binakakoak izaten dira.

Bai. Galarretan jokatzen ditugun partida hauek enpresak antolatzen ditu eta binakakoak dira. Binakakoa bakarrik urteko txapelketarik garrantzitsuenetakoa da: Casino Kursaal deitzen dena. Bestela beti binaka aritzen gara.

PILOTA ESKOLA

«Gaur egun Tolosaldekoek, gutxienez eskura dute erremontea ikasteko aukera»



I. TERRADILLOS

Binakakoak ikuskizun handiagoa izango du.

Bai, joko gehiago egiteko aukera ematen du. Binaka jokatzen dugunean pilotalekua oso luzea da: egia da ere binaka jokatzen duguna beti irabazi nahi izaten dugula, oihartzun gehiago izaten baitu, baina ikusteko orduan binakakoa politagoa da, ikuskizun gehiago eman daitekeelako. Ordu eta laurdenekoak edo, izaten dira normalean.

Binaka, baina txapelketan zure anaia: han egon zinen?

Bai, egon nintzen Faustino finalean. Final hau «deskafeatua» izan zen: Imanol Altunak txapelketa ona egin zuen, erregularra izan da ere bai, baina finalean egun txarra izan zuen. Aurkariak, Ezkurra eta San Migel oso ondo aritu ziren ere, ezin zaie meritorik kendu. Baina final batean eman nahi den maila ez zuen eman, eta ez zen lehiatasunik ikusi: berehala erabaki zen garaipena.

Urtean zehar binaka jokatzen duzue, eta beti bikoteak aldatuz doaz: nahiago izaten duzu norbaitekin jokatu?

Ez, denekin gustura aritzen naiz. Ona da guretzat bikoteak aldatzea, eta ohitzen joaten zara denekin jokatzen. Urte osoan zehar beti berdina aritzen gara. Baina, esan dudana bezala, ez dago faboritorik ere.

Urrutia, San Migel... Etorkizuna nola ikusten duzu?
Nahiko ondo. San Migelek 19 urte ditu bakarrik eta oso maila ona erakutsi du: Ezkurrarekin txapelketa izan da Binakako Txapelketan. Partida onak

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzaileak. Zaintzaileak erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

Harreragileak eta

laguntzaileak. Harreragileak eta laguntzaileak eskolentarako, udaletarako. 943 44 48 66.

Langileak. Elektrizitate enpresa batek langile autonomo edo kontratupekoak behar ditu.

Obrak, industrietarako... Deitu 943 80 00 00 telefono zenbakira.

egin ditu eta enpresak ere partida politikak ematen dizkio.

Hau izan daiteke etorkizuneko txapelketako bat?

Bai, izan daiteke. Maila honekin jarraitzen badu aukerak ditu eta ezaugarri onak ditu jokatzeko garaian.

Gazte hauez gain, Tolosan ere beste gazteago batzuk ere badira.

Bai, eskola egin dute: esku pilota, pala, erremontea eta zesta-punta irakasten dute. Oso ondo ikusten dut hau: zenbat eta aukera gehiago eman, orduan eta hobe guzientzat. Gure garaian ere bazen eskola, baina Galarretan. Orain Tolosaldekoek gutxienez eskura dute ikasteko aukera hori. Lau berezitasun daude; gutxienez, txikiek aukera hori dute.

Urteko plangintza?

Urtean zehar betiko partidak egingo ditugu: bihar, adibidez, 16:00etako hirugarren partidari ariko naiz. Bestela, Udaberriko Txapelketa laster hasiko da, eta egunerokoarekin hausteko ondo dator, baina guretzat garairik garrantzitsuenak uduko da: sanferminak, abuztua...

Zure anaiaekin beti kontra?

Bai, biak aurrelariak izatearekin ezingo dugu bikote bat osatu. Polita izango litzateke biek elkarrekin jokatzea: beti aurka jokatu beharko dugu. Behin final bat jokatu genuen binaka, eta berak irabazi zuen txapelketa.

AMEZKETA ▶



Talai-dantzariak. N. URBIZU

Talai-Dantza egiteko lehen entsegua gaur izango da

ERREDAKZIOA

Inauterik ia ganean izanik, hainbat herritan modu eta egun desberdinetan antolatzen dituzte jaia: Lizartzan, Abaltzisketan, Leitzan edo Amezketan, kasu.

Urtero bezala aurten ere, Amezketan Inauteriak baserri eta etxez etxe, igandean eta astelehenean, Talai dantza eginez ospatuko dituzte. Horretarako, aurrez entsegua egingo dituzte, dantzan ikasteko eta antolatzeko: gaur eta etzi 20:30ean udaletxeko arkupeetan bilduko dira.

Talai-dantzariak igandean eta astelehenean goizean, 08:00etan, hain zuzen, Zazpilturrin elkartuko dira gosaltzeko eta ondoren makilen dantzari helduko diote. Horregatik, «dei egiten diegu herritarrei Talai-dantzan atara nahi badute entseguetara edo igande edo astelehenean azaltzeko».



TOLOSAKO UDALA

LEHIAKETAREN IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek, 2007ko urtarrilaren 15ean, T.2 "Santa Luzia" Eremuko Urbanizazioaren (1.zatia eta 2.zatia) proiektua exekutatzeko Klausula Administrazioen agiria onartu zuen.

1.- Helburua: T.2 "Santa Luzia" Eremuko Urbanizazioaren (1.zatia eta 2.zatia) proiektuko obraren kontratazioa.

2.- Litzitazioaren zenbatekoa: 1.295.629,13 € (BEZa barne)

3.- Lanak egiteko epea: 6 hilabete

4.- Espedientea ikusteko: Kopibat (Lizardi plaza 2), telefonoa 943 65 51 66, Kopitrec (Gudari Kalea 8) telefonoa 943 65 40 28

5.- Behin-behineko fidantza: 25.912.60€

6.- Behin betiko fidantza: Adjudikazio-zenbatekoaren % 4

7.- Enpresen sailkapena:

TALDEA	AZPI TALDEA	MAILA
A	1	D
A	2	C
E	1	C
G	4	C
G	5	A
I	1	C
I	6	B
K	6	A

8.- Eskaintzak egiteko epea eta tokia: Tolosako Udaletxeko Sarrera Erregistroan, plaza Zaharra, 6-B-n, 2007ko martxoaren 12a eguna arte, eguerdiko ordu bata (13:00) arte

Tolosan, 2007ko otsailaren 13an
ALKATEA

IBARRA ▶ GIZARTEA

Langostino Moto Kultur elkarteak 2007ko moto biren egitaraua aurkeztu du

Hilaren 25etik ekainaren 30era, hilabetean behin 130 kilometro inguruko birak egiteko aukera izango dute Ibarrara gerturatzen diren motozale guztiek

ASIER IMAZ

Ibarrako Langostino Moto Kultur Elkarteak, 2007. urteko moto biren egitaraua aurkeztu du. Otsailetik hasita, hilabetero motoz ibilaldiak egingo dituzte Ibarrako plazatik irtenda. Kasuok eramaneraz gero, era guztietako motorrek parte hartu ahal izango dute moto biretan. Ekimenari uztailean emango diote amaiera, jadanik urteroko ohitura bilakatu den jaieran, Langostino Moto Festare-

kin hain zuzen ere. Aurten bosgarren urtea egingo dute jaierarekin hasi zirenetik. Ibarra motozaleen bilgune bilakatzen da urtero kontzertu eta ekitaldi anitzekin osaturiko festan.

2007ko lehen moto bira hilaren 25ean egingo dute. Irteera Ibarrako San Bartolome plazan izango da, 09:00etan. Leku berean amaituko da 13:15etarako, ahaleginak behintzat egingo dituzte itzulera ordua bete dadin. 130 kilometro inguruko ibilbidea aurreikusitako dute, eta



Lehen moto birako irteera Ibarrako San Bartolome plazatik. HITZA

antolatzaileak une guztian taldearen aurretik eta atzetik joango dira, nabaria izango delarik hauek nortzuk diren. Bide erakusleari ezin izango zaio aurrerik hartu.

Parte hartu ahal izateko, 5 euro ordaindu beharko dira pertsona bakoitzeko eta bira eta hamaiketako gastuei aurre egiteko erabiliko da dirua. Izena emateko 636 403170 (Andorra), 670 417915 (Moski) edota 653 013997 (Mikel) telefono

zenbakietako batera deitu beharko da, astebete lehenago gutxienez beti ere, gosaria aldez aurretik enkargatu eta preparatu nahi baitute antolatzaileek.

Orain dela bi urte hasitako moto birak aurten ere jarraipena izango du beraz. Motorrik ez duenak baina hala eta guztiz ere zalea denak, irteera gunera gerturatuz gero, gozatzeko aukera faltarik ez du izango partaideen motorrei begira.

MOTO BIRAK ▶

EZAUGARRIAK

- ▶ Pertsonako 5 euro: bira eta hamaiketako.
- ▶ 130 kilometro inguruko birak.
- ▶ Bide-erakuslea ezin izango da aurreratu.
- ▶ Antolatzaileak aurretik eta atzetik joango dira.
- ▶ Irteera 09:00etan Ibarrako San Bartolome plazan.
- ▶ Bukalera 13:15ak aldera Ibarrako San Bartolome plazan.

- ▶ Birak era guztietako motorrentzat dira.

DATAK

- Otsailak 25, igandea.** Moto bira.
- Martxoak 25, igandea.** Moto bira.
- Apirilak 29, igandea.** Moto bira.
- Maiatzak 27, igandea.** Sorpresa.
- Ekainak 30 eta Uztailak 1.** V. Langostino Moto Festa.

LIZARTZA ▶

Garikoitz Etxeberriak 7. eguna egin du Mitard-ean

A. IMAZ

Hilaren 5ean Euskal Preso Politikoen Kolektiboak, Amnistia, Autodeterminazioa eta Estatus politikoaren aldeko protestaldia hasi zuen espetxeetan.

Frantzia, Tolosako espetxean dagoen Garikoitz Etxeberri lizartzarrak protesta-ekin bat egin zuen. Asteazkenean ordea, zigor eta isolamendu zeldan sartu zuten, espetxe bereko beste hainbat euskal preso politikoren modura, Mitard deiturikoan, hain zuzen. «Ohea eta mahaia zementuzkoak ditu, leiho bakarra, atek duena eta argirik ez dauka, zelda kanpotik piztu behar baita barneko argia».

Frantziako legediaren arabera, 15 egun baino gehiago ezin ditu egin presoak barnean. Kasu honetan Garikoitz Etxeberriaren abokatuak ez daki noiz irtengo den bertatik bixita egin ahal izateko, izan ere, euroginduauren aurkako helegitearen zain dago lizartzarra, Espainiara estraditatuko duten jakiteko.

ALEGIA ▶

Intxurrek lautik lau garaipen asteburuan

Intxurreko futbol taldeek 4 garaipen lortu dituzte asteburuan. Jubenilek Seguraren aurka etxetik kanpo gol bateko errentaz irabaztea lortu zuten. Lurreldekakoak Gazteak taldeari irabazi zion 1-4 emaitzarekin. Kadeteek igogera fasean Betigazteren aurka 4-2 garaitu zituzten. Neskek derbia irabazi zuten Laskorainen aurka, 6 gol sartuz.

TOLOSA ▶

Genero indarkeriari buruz, erakusketa

Aranburu jauregian *Emakumeen aurkako indarkeriari ez!* izeneko erakusketa dago ikusgai hilaren 24ra bitarte, astelehenak eta jai egunak izan ezik.

TXOTX

Arratzain

Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 Usurbil

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Iparragirre

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 Hernani

Urbitate

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Gurutzeta

Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

Lizeaga

Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 Astigarraga

Elutxeta

Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urnieta

Rezola

Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

AMAIA PANDO ▶ CEDERNA-GARALUR-KO LAN ORIENTAZIO ZERBITZUKO TEKNIKARIA

NAIARA GARZIA

Cederna-Garalurren barruan, lan-orientazio zerbitzuak 9 urte daramatza martxan Leitzaldean. Amaia Pando (Bera, 1979), zerbitzu honetako teknikaria da.

Lan-orientazio zerbitzuaren helburua zein da?

Helburua jendeak gure ingurunean lana lortzea da. Guk lan-poltsa bat daukagu eta jendea lan eske etortzen zaigu. Gero enpresetatik lan eskaintzak egiten dituzte. Gu eskararak eta eskaintzak doitzen saiatzen gara. Gure helburua jendea hemen gelditzea eta bertan lan egitea da. Etaaldi berean hemengo enpresek bertako jendea kontratatzea.

Cederna-Garalur zein herrietara iristen da?

Nafarroako mendialde osora. Zerbitzua 3 zonaldeetan banatuta dago. Ni Baztan, Bidasoa eta Leitzaldean mugitzen naiz.

INEMarekin zer ezberdintasun ikusten dituzu?

Aunitzetan enpresaburuek Cedernara deitzen dute, guk gauzak hagitzez azkarrago mugitzen ditugulako. Ez da eskaintza publiko bat egin behar, gutunak bidali... Guri deitu eta ziurrenik pare bat egunetan jendea jarri diegu. Baina nik uste ezberdintasun nagusia jendearekiko arreta dela, hagitzez pertsonalagoa baita.

Bertako enpresek orain arte ze erantzun izan dute?

Nahiko ona. Txarrena izaten da gizaratean berez ematen diren arazoak ere guk ikusi egiten ditugula, adibidez, eskaintza gehienak gizona zontzako dira. Bestela deitzen digutenean lana eskaintzeko izaten dugu.

Eskaintzen den lana, beraz, orokorrean gizona zontzako izaten da?

Bai, gainera ezberdintasun handiarekin. Azkenean hemen industriatik bizi gara eta arlo horretan oraindik gehienak gizona zontzako dira.

**Herriarren artean, berriaz, orain arte zer moduzko harre-
ra izan du Leitzan?**

Leitzan jende aunitz etortzen da izena ematera. Ziurrenik jendeak gehien izena ematen duen herria Leitza da, Berarekin batera. Gertatzen dena da leitzarrei askotan lana Lekunberrin lortzen diegula, lan aunitz ateratzen baita han.

Zerbitzu honetara jotzen duen jendeak orokorrean zer profil dauka?

Nik uste hiru profil daudela. Bat izango litzateke emakumezkoena, 40-45 urtetik gorakoena, formakuntzarik gabekoa, bere bizitzan zehar etxetik kanpo lan aunitz egin ez duena. Gero beste bat daukagu, ema-

«Gure helburua jendea hemen gelditzea eta bertan lan egitea da»

Cederna-Garalurko lan-orientazio zerbitzuak urteak daramatza mendialdeko herrietan lana bultzatzen



N. GARZIA

kumeena baina justu aurkako: gaztea eta izugarriko prestakuntzarekin, eta berak ikasi duena zonaldean gelditzearekin uztartu nahi duena. Hau nahiko zaila izaten da mendialdeko herriak direnean, ez baitaude zerbitzu aunitz. Hirugarren profila etorkinena da. Orain hauekin ere lan asko egiten dugu Leitzan eta Beran. **Lana bilatzeaz gain, jendearen prestakuntzaz ere arduratzen zarete, ez?** Urterto proiekturen bat izaten

dugu. Aurten Lekunberrin ikastaro bat egin behar dugu, enpresa bat jartzeko gure ustez beharrezkoak diren gaitasun pertsonalen inguruko: informazioa nola bilatu behar den, autoestimua nola landu, sormena...

Noiz hasiko da ikastaroa?

Martxoaren 13an hasiko da, Lekunberrin eta izena emateko epea orain zabalduko dugu. Ez dugu epe itxi bat jarriko.

Lan egoera zonaldean nola ikusten duzu? Herrian bizi eta lan egitea posible al da?

Nire ustez lana badago. Egia da aukera gehiago daudela gizona zontzako, baina horri pixkanaka buelta ematen ari zaio, enpresa aunitz jada emakumeak hartzen ari baitira. Nik uste lana izanen dela eta jendea gero eta gehiago geldituko dela hemen. Leitza gainera handitzen ari den herri bat da eta denborarekin zerbitzu gehiago izanen ditu eta honek lanpostu gehiago sortuko ditu. Etorkizuna nahiko baikor ikusten dut.

hilberria ▶

Martin Rezola Zubeldia

Herenegun hil zen, 64 urterekin.

Bagenekien senar eta aita handi bat zinela; 'lezio' ederra emanez joan zara. Martin, mattea, betiko gurekin!

Zure familia.

hileta ▶ hileta elizkizuna gaur izango da, Ordiziako Jasokunde parrokiari, arratsaldeko ZAZPIETAN.

ORDIZIA, 2007ko otsailaren 14an



hilberria ▶

Bonifacio Maiora Arratibel

Atzo hil zen, 56 urterekin.

Boni, beti izango zaitugu gogoan.

Talleres Urrutiko zuzendaritzak eta lankideek.

oharra ▶ hileta elizkizuna gaur izango da Gabiriari, arratsaldeko SEIETAN.

GABIRIA, 2007ko otsailaren 14an



hilberria ▶

Angela Otamendi Zabala

ANDREA

(Eugenio Begiristainen alarguna)

ATZO hil zen, 78 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren. **-Golan bego-**

Bere seme-alabak: Maite eta Altzo Txiki, Jose Ramon eta Nekane Zelaia, Iñaki; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko SEIETAN, Altzo-azpiko SALBATORE parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Borda baserria

ALTZO-AZPI, 2007ko otsailaren 14an



hilberria ▶

Angela Otamendi Zabala

ANDREA

(Eugenio Begiristainen alarguna)

-Golan bego-

Erreka murmurioa olatik bordara hoa gure andere maitearena nora hator herioa eskuz eskura taloa intxaur ta sagarrendoa zaude gurekin mimoz lantzean baratzeta eta soroa



Zure seme-alabak: Maite eta Altzo Txiki, Jose Ramon eta Nekane Zelaia, Iñaki. ALTZO-AZPI, 2007ko otsailaren 14an



hilberria ▶

Miren Arbil Izagirre Ibarbia

Azpeitian HITZA banatzen zuen

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin

ETXERAINO

ANDOAIN, 2007ko otsailaren 14an



hilberria ▶

Miren Arbil Izagirre Ibarbia

Familiarekin bat egiten dugu une latz hauetan

Urola Kostako Hitzako langileak

hitza

Arren eskatzen dizuegu etor zaitzela GAUR, otsailaren 14an, arratsaldeko 19:30ean, Soreasuko parrokiari, GORPUEA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ hileta Azeptitiko tanatorioan izango da

AZPEITIA, 2007ko otsailaren 14an



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Arpegi taldearen Ostiral Meheko jaialdirako sarrerak salgai daude Cantabrico, Triangulo eta Meson Atodo tabernetan.
Tolosa. Zainketa klinikoak eta asistentzialak, haur eta nerabeen zaindariak, optika, etxeko laguntza, geriatría, inmigrazio teknikari laguntzailea. 200 ordu teoriko eta 100 praktikiko. Inmakulada ikastetxea: 943 673629.

Alegia. Astelehenero helduentzako klaseak hasiko dira. Helburua lehen ikasitako gauzak gogoratzea eta bi ordu lagunarte on batean igarotzea da. Izen-ematea Udalebeko gizarte zerbitzuetan izango da eta HHlko telefono zenbakian: 943 67 26 60.

Zizurkil. Izen-abizenak euskal grafiaira aldatu nahi duenak Aurrera plazako udal bulegoetara jo dezala errolda agiria (bertan egin daiteke), jaiotza agiri literala, NANen fotokopia eta familia liburuarekin.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Elpuentea (lehen Carlos Puente de Ambrosio) artistaren pintura eta eskultura erakusketa ikusgai, Aranburu jauregian, astelehenean eta jaiegunetan izan ezik.

Tolosa. Emakumeen aurkako indarkeriarik ez izeneko erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian, otsailaren 24ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 61. 112.
 Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
 Tolosa. Etxebeite, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

IRRATIA

Txolarre irrátia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotza magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren erreparosoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotza (errepikapena).
 20:00-21:00. Irauli uhinak.
 21:00-23:00. Bide okerretik.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Sagardoz blai

BEDAIO ▶ Barrikote «arrakastatsua» izan zuten bedaiotarrek joan den asteburuan Artubi elkartean; orotara 70 lagun inguru bildu ziren festan



Sagardoaren inguruan festa polita antolatuta zuten Artubi elkartean bildu ziren 70 lagunek. HITZA

ERREDAKZIOA

lanterien gertuarerekin batera, bedaiotarrek ere euren festa berezia antolatzen dute. Hala, eta iaz bezalaxe, barrikotea egin zuten joan den larunbatean. Antolatzaileek azaldu dutenaren arabera, «oso arrakastatsua» izan zen eta Bedaioko elkartea jendez lepo bete zen ospakizunerako. Orotara, 70 lagun inguru bildu ziren sagardoaren inguruan gau atsegina igarotze aldera.

Lortu ere lortu zuten, izan ere beharrezko osagai guztiak izan zituen gauak. Lehenik eta behin, barruak bapo asetzeko aukera izan zuten bedaiotarrek, sagardotegiko menu goxoa dastatu baitzuten. Ondoren, hizketaldi eta mus partida politak antolatuta zituzten, gazte eta ez hain gazteak giro ederrean igaro zutelarik.

Hurrengoa, martxoan

Dagoeneko hurrengo ekitaldian pentsatzen ari dira bedaiotarrak. Hain zuzen ere, martxoaren 10ean ospatuko dute, sagarra eta sagardoaren inguruan. Izan ere, Astigarra-gara irteera egindako dute. Aurre orain gutxi ireki duten museo ikusteko irteera egiteko asmoa ere azaldu dute auzokideek.

Bazkaria, berriz, bereziartua sagardotegian egingo dute. Bertara joan nahi duenak izena eman dezake Bedaioko Artubi elkartean.

Urterako ekitaldi ugari antolatu dituzte. Eta antolatzaileek deialdi berezia luzatu nahi izan dute bertan parte hartzeko.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Anne Agirre Etxeberria (Alegia). Gaur 3 urte. Ibarako aiton-amona eta Osaba Patxiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...